Basque Writing 13

Hizkuntza aniztasuna

"Ongi Etorri" collagea, Casey Larae Shea artista kaliforniarraren artelan interaktiboa da, migranteek dakarten hizkuntza aniztasunari ongi etorria emateko eta euskarara gerturatzeko.

Hamabi urte bete ditu aurten Euskal PENek hirugarrenez sortu zela. Talde xume jaio eta hala gara, urtez urte kideak banaka gehitzen, eta gure txikitasunean ere xume baina gelditu gabe lanean, gure kultura mundu zabalean emateko, munduko lagunak gureratzeko, eta kultura guztiak lotzeko eta literatura ezinbesteko egiten duten adierazpen askatasuna defendatzeko , haren urraketa salatuz, eta hura sufritzen dutenen aldea lanean.

Asmo beretsuekin ekin genion 2016ri ere, baina jakitun, urte berezia zela. Donostia dugu Europako kultur hiriburu, eta Euskal PENek eta urteotan egindako lanak, defendatutako egitasmoak eta ideiek protagonismo berezia dute. Europako hizkuntzarik zaharrena dugula esaten da sarritan euskaldunoi buruz, eta egia izanda ere, euskaldunok badakigu Europako hizkuntzarik berriena ere badaukagula, beste batzuek duela 500, 300 edo 150 urte egindako bidea neurri handi baten gure bizitzan zehar egin duela gure hizkuntzak, modernizatzen, XXI. mendera egokitzen, mundu tradizionaletik sare sozialetaraino doan bidea laburtzen.

Hizkuntzek protagonismo berezia dute, izan ere, Donostia2016ko egitasmo horretan. Hizkuntza handi/txiki, gutxitu edo normalizatu zatiketatik haratago, hiztun guztiok gure hizkuntzan bizitzeko eskubidearen defentsa, Europako aniztasunaren bultzada, globala etxetik ekitea eta antzeko ideiak lantzeko gune da aurten Donostia.

Ama-hizkuntzaren egunean, aniztasun horren aldeko aldarria egin genuen, berekoikerian itxitako kontinenteari ateak ireki eta ongi etorri esateko dei egin genuen, etxean daukagun aniztasuna ospatu eta gure etorritakoen aberastasuna euskaraz ospatu genuen. Elkartasuna adierazi genien Mediterraneoaren bi aldeetatik Bizkaiko Golkoko bazter honetaraino beren ekarpena ekarri ziguten lagun amazig eta kurduei eta, denaren gainetik, bizikidetzaren eta begirunearen aldeko ospakizuna egin genuen.

Ez gara Europan bakarrik gelditu. Hego Afrikan izan den Hizkuntza Eskubideen Batzordean parte hartu dugu, eta itzel pozgarria izan da Afrikako zenbat lagunek parte hartu duten bileran. Kurdistanen izan gara egoerarik zailena bizi duten adiskideei elkartasuna erakusten eta elkarrekin esperientziak partekatzen. Ongi etorri egin diegu kontinentearen iparreko muturretik guregana etorritako sami lagunei ere.

Eta urte amaitzerako, mugarri garrantzitsua ezarri nahi dugu hizkuntza-eskubideen arloan, abenduan egingo den kongresuarekin, eta handik irtetea espero dugun Protokoloarekin. Hizkuntza-eskubideen babesean diharduten hainbat erakunde elkartu dira horretarako, gizarte zibiletik bultzatutako lanean, eta hor PENek protagonismo berezia hartu du.

Talde txikiak urrats txikiak baina etengabe ematen baditu, bide luzea egiten du. Gure xumean, hala egin dugu, eta hala egiten gabiltza 2016 berezi honetan ere. Eta oharkabean, oso urrunera ari gara iristen.

Urtzi Urrutikoetxea
Euskal PEN-eko lehendakaria

DSS2016ko HIZKUNTZA ekitaldiak

Euskarari eta tokiko zein Europako hizkuntza aniztasunari buruzko proiektuak

Hizkuntzak izaki biziak dira, denboran garatu eta irauteko aldeko ingurumena behar dute. Komunikaziorako eta identifikaziorako oinarrizko elementua dira, bizikidetzarako giltzarria. Europan 284 hizkuntza baino gehiago ditugu, eta egungo erronka da baldintza egokiak sortzea aberastasun hori garatzeko, hizkuntza-aniztasun horren sostengarritasunaren bila.Euskara biziberritzeko ekimenek nabarmentzen dute Euskal Herria, eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak zenbait egitasmotan dihardu lanean Kontseilua-Euskararen Gizarte-Erakundeekin batera, aniztasunaren balioa azpimarratzeko eta hizkuntza gutxituetan lan egiten duen **agenteen** sareak sustatzeko.

• **EUSKARRIAK** www.euskarriak.eus (Bagera-rekin)

Pertsonek oharkabean hirian barna aurkituko dituzten euskarrien, hausnarketen eta mezuen bidez, hizkuntza-aniztasunaren aberastasunari buruzko kontzientzia piztea, handitzea eta euskararen erabilera bultzatzea ditu helburu. Herritarrekin, artistekin eta adituekin landutako prozesu parte-hartzailean oinarritzen da.

• **IN VARIETATE CONCORDIA** www.invarietateconcordia.eu

Marga Berra Zubietak zenbait tailerretan parte hartzeko eta hitzetan jolas egiteko gonbidapena egin zien Donostiako hamaika laguni. Euskara, espainiera, ingelesa, katalana, poloniera, albaniera, txekiera, finlandiera, wolofera eta arabiera zituzten lehen hizkuntza. Egitasmoak zubi fonetikoak eraiki ditu hizkuntzen artean eta liburu bat (Katu katu & co), kale-erakusketa bat eta webgune bat izan ditu emaitza.

• **HITZARGIAK** www.hitzargiak.eu (Soziolinguistika Klusterra-rekin)

Europako hizkuntza gutxituak biziberritzeko prozesuan egiten ari diren praktika onak identifikatu eta haien berri emateko egiten dugu lan; eta horien atzean dauden eragileak elkarrekin harremanean jartzeko. Emaitza nagusiak dira “praktika onenen” webgune bat eta aktoreen arteko harreman zuzena sustatzeko nazioarteko topaketa bat. Topaketa horrek lekua egin zien Europako hizkuntzak gidatzen dituztenei elkarrekin lan egiteko, harreman berriak sortzeko eta etorkizuneko egitasmo partekatuak eraikitzeko.

• **BESTE HITZAK/ OTHER WORDS** www.otherwordsliterature.eu (Donostia Kultura-rekin)

BESTE HITZAKen helburua sorkuntzarako egoitzen sare bat jostea da hizkuntza txiki eta gutxituetan diharduten idazleentzat. Parte hartzen duten hizkuntza komunitateak euskara, frisiera, Irlandako gaelikoa, mazedoniera eta esloveniera dira. Urtero, parte hartzen duen lurralde bakoitzak bi idazle bidaliko ditu zortzi asteko egonaldi batera beste bi eskualde parte hartzailetara, eta parte hartzen duten eskualdeetako bi idazle hartuko ditu trukean. Egonaldietan, idazleek harremana izango dute bertako komunitatearekin, eta sormen prozesuaren berri emango dute ekitaldi publikoetan. Egonaldietan sortutako testu guztiak beste eskualdeetako hizkuntzetara eta ingelesera itzuliko dira.

TOSTA www.tosta2016.eu (Euskaltzaleen Topagunea-rekin)

Irlanda, Kornualles, Gales, Eskozia, Frisia, Galizia eta Euskal Herriko elkarteak elkarrekin lanean ari dira egitasmo honetan. Kideetako bakoitzak sei asteko egonaldia antolatu dute artista-egoitza baten beste lurralde bateko sortzaile batentzat, hizkuntza gutxituak eta haien kulturak ardatz duten artelan bat eratzeko. Apiriletik irailera, hiruna eguneko jaialdia hartuko du komunitate horietako bakoitzean itsas merkataritzako edukiontziekin eratutako jai-gune batean. Artistek sortutako artelanak, musika, tailerrak eta abar hizkuntza gutxituetan eta Europako aniztasunaren ospakizunean zentratutako jaialdi horietako zati izango dira.

• **EUROPEAN LANGUAGE DIVERSITY FORUM** (Unesco Etxea-rekin)

Ekimen honek Europako gizarte zibileko aktiboak eta adituak elkartuko ditu, Europako hizkuntza gutxituen garapenari eragiten dioten faktoreak islatzeko asmoz. Beraz, helburua da eskala handiko aukera sortzea akordioak ezartzeko hizkuntza gutxituen erabilera berpiztu eta normalizatzeko estrategia zehatzetan, eta elkarlana sustatzea. Foroak honako auziei helduko die: hizkuntza-eskubideak, EBko hizkuntza-politika, Eskualde Hizkuntza edo Gutxituen Europako karta, hizkuntza-aniztasuna garapenerako faktore gisa, hezkuntza eleanitza…

• **ESKUBIDEA BERMATZEKO PROTOKOLOA** www.protokoloa.eus (Kontseilua-rekin)

Komunitatean oinarritutako ehunka antolakunde daude hainbat esparrutan lanean hizkuntza gutxituak bultzatzeko asmoz. Egitasmo honek Europako gizarte zibilarentzako tresna bat proposatzen du, hizkuntza-berdintasuna elikatzeko prozesuaren kargu egiteko. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa azken urteotan hainbat lan-taldek egindako eztabaiden ondorio izango da, perspektiba zientifikoak, iritzi akademikoak eta ikuspegi sozialak elkartzen dituen tresna bat, eta nazioarteko bilera baten aurkeztuko da (Europako Hizkuntza-Aniztasunaren Foroa). Ondorioz, Protokoloa nazioarteko foro eta erakundeetara eramango da, mota guztietako erakundeek hizkuntza-aniztasunarekiko euren konpromisoa arautu dezaten.

Asier Basurto Arruti

AMA HIZKUNTZAren Nazioarteko Eguna

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna, otsailaren 21ean, modu berezian ospatu dugu aurten, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko ekitaldien baitan. Europa mendebaldeko herrialde gehienetan legez, munduko herrialde guztietatik etorritako lagunak Euskal Herria dute bizileku joan den urteotan. Kontinente guztietako 120 hizkuntza baino gehiago egiten duten euskal herritar berri horiek gure herrialdeari dakarkioten ondare aberatsa pozgarri da, eta horrekin batera euskarak gu guztion zubi izateko duen garrantzia azpimarratu dugu, iaz bezala.

Kaissa Ould Braham

Azken hilotan, gainera, bestelako fenomeno bat ere ari da gertatzen, gerrari ihesi datozen milaka lagunen tragedia Europako ateetan, eta horien aurrean gehiegitan izandako jarrera lotsagarria. Horregatik, **Ongi Etorri** ospakizuna egin gura izan dugu aurtengo otsailaren 21a. Euskaldunok ez dugu ahazten geu ere erbeste-ratu izan garela, ondo dakigu zer den erbestea eta zelan ez, hondamenditik ihesi datorrenari babesa ematearen balio eta behar unibertsala aldarrikatzen dugu.

Mediterraneoaren hegoaldetik eta ekialdetik Kataluniara eta Belgikara iritsitako **Kaissa Ould Braham** kabiliar amazig-a eta **Rhodi Mellek** kurdua izan genituen, hala, Karlos Zurutuza PENkide eta kazetariak gidatutako mahai inguruan, beren herrialdeetako egoeren berri ematen. Aljerian, eta kabiliarrek bereziki, ondo dakite zer den beren hizkuntzaren eta askatasunen aldeko eta fanatismoaren aurkako borroka zer den, eta Siriako Rojavan ere munduari lezio demokratikoa eman diote kurduek.

Ainara Gorostitzu kazetariak eta **Itziar Idiazabal** Unesco Katedrako arduradunak ama-hizkuntza gaur nola ulertu behar den hausnartu zuten, hainbeste hizkuntza bizi diren Euskal Herrian. Segidan, nazioarteko kooperazioaren eremuan hizkuntzaren garrantzia txertatzen asmatu duen Garabide elkarteko **Txema Abarrategi**k *Beltzean mintzo* dokumentala aurkeztu zuen. Eta eguna biribiltzeko, hizkuntza gutxituen SUNS festibaletik **Martina Iori** ladiniar kantariak Euskal Herriko Hesian taldeko **Zuriñe** eta **Fran**ekin batera emanaldia egin zuen, bidenabar, Dolomitetako hizkuntzaren eta kulturaren berri emanez bidenabar.

Rhodi Mellek

Ama-hizkuntzaren nazioarteko egunean bertan, berriz, otsailaren 21ean, **Itxaro Borda** eta **Lutxo Egia** euskal poetek eta Kaissa Ould Braham kabiliarrak poesia emanaldia egin zuten, **Asier Serrano**ren gitarraz lagunduta. Otsaileko egun eguzkitsua lagun eta jardunaldiei amaiera emateko, mundu osotik Euskal Herrira etorritako lagunen esperientziak ezagutu genituen. Hitza eta doinua lagun, **Banaiga Band – The Rolling Immigrants** taldea eratu dute. Euskarazko eta munduko kantuen bidez, elkartrukeari leku egin genion, eta bakoitzak bere herriko objektu, testu edo pasarte baten bidez azaldu zituen bere herrialdeko berezitasunak, zerk ekarri zuen Euskal Herrira eta zer aurkitu duen hemen.

Euskal PENen ekimenak

Hizkuntzari, hiztunen eskubideei, eta hizkuntza-gutxituen eta haietan egiten den kulturari eskainitako urte berezi honetan, Euskal PENetik ere ez dira gutxi izan abiarazitako ekimenak. Talde txikia izanagatik, lanerako grinarik ez da falta izan etxean zein atzerrian zubi-lana egiteko, gure literaturaren eta lanaren berri ematen, elkartasuna zabaltzen, eta bestelako hamaika ekimenetan.

Urtarrilean **Ashraf Fayadh** poeta palestinarrari Saudi Arabiak ezarritako heriotza-zigorraren aurkako mundu mailako ekimenarekin bat egin, eta haren poemak itzuli genituen. Donostian ekitaldi xume baina hunkigarria egin genuen, poema haiek irakurtzen, eta gure alea jartzen nazioarteko kanpainari.

Aste batzuk beranduago, **Ama-Hizkuntzaren Nazioarteko Eguneko ekimenak** antolatu genituen Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuko ekitaldien baitan. Aurreko orrialdean bildu dugu xeheago asteburu luze bezain emankorrean antolatutakoa.

Nazioartean egindako lehen ekimena berriz, **Itzulpengintza eta Hizkuntza-Eskubideen Batzordea**ren bileran izan genuen. Ezaguna da batzuetan aldaketa txiki batek iraultza berri bat piztu dezakeela, eta aurten batzarra **Johannesburgo**ra eramateak izan du horretatik zerbait. Hego Afrikan antolatu, eta bat-batean kontinenteko idaz-le eta hainbat PEN talde batu dira. Eta horri esker, Europan eskuarki gutxi hitz egiten diren gaiak azaleratu ziren, afrikar ikuspegitik mintzo nagusiki: idazleen arteko harremanak, argitaratzeko zailtasun eta oztopoak, hizkuntza kolonialen eta afrikarren arteko auzia literatura egiteko... **Laura Mintegik** eta **Urtzi Urrutikoetxea**k parte hartu zuten bileran, eta afrikar idazleekin harremanak egin eta sakontzeaz bat, 2016 urtearen garrantzia azpimarratu eta Donostian antolatutako ekimenen berri ere eman zuten. Europako Kultur Hiriburua izateaz gain, hizkuntza-eskubideak unibertsalak baitira.

Ekainean, bisita berezia jaso genuen Euskal Herrian. Hobe esan, berriz izan genituen bisitan. 2013an lehen aldiz etorri ziren gure herrialdera **Non-Fiction Sami Writers**

elkarteko hogeita hamar idazle, orduko hartan Bilbora nagusiki (Euskal Herriko hainbat txokotan barna ibili arren), eta aurten 2016ko ekitaldiekin bat eginik Donostiara etorri dira urteroko bilera ospatzera. Hala, Euskal PENekin elkarlanean eta Donostia 2016rekin batera jardunaldi interesgarria egin genuen euskal literatura nazioarteratzeko ardura duen Etxepare Institutuko lagunekin batera. Hainbat elkarterekin harremanak egin zituzten, besteak beste Bertsozale Elkartearekin eta Hizkuntzen Biziberritzean diharduen **Garabide** GKEarekin, baita Donostiako euskaltzaleak batzen dituen **Bagera** elkartearekin ere.

Urtzi Urrutikoetxea Kurdistanen ere izan da uda honetan, **PEN Kurduko lagunei bisita** egiten, eta elkartasuna adierazten, aurtengo neguan izandako operazio militarretan bulegoa txikitu baitzieten. Horrekin batera, euskararen mugimenduaren eta kurduera sustatzeko ekimenen artean sortu den elkarlan interesgarria bertatik bertara ezagutzeko parada izan du. Besteak beste, kurduerazko eskolen bultzatzaileekin eta **Azadiya Welat** egunkariko ordezkariekin egon da, eta Diyarbakirreko udalaren ekimenez hizkuntza indarberritzeko urrats sendoak ezagutu ditu, horietako zenbait Euskal Herriarekin egindako harremanen ondorioz. Besteak beste, **Euskaraz Bizi Nahi Dut** leloa kurdueraz ere badagoela ikusi dugu, Kantauri ertzetik Mesopotamiaraino eramandako ekimen ede-rrean.

Kongresua prestatzen ari ginela, azken bilera baterako au-kera izan dugu, eta azken aldiko albisterik onena iritsi zaigu: **Jilan Hassanpour**, **Adnan Hassanpour** kazetari kur-duaren arreba izan dugu Bilbon bisitan, eta une horretan jakinarazi diote neba espetxetik irtetear zela. Euskal PENek 2008an izendatu zuen **Adnan Hassanpour** Ohorezko Kide, Irango erregimenak heriotzara zigortu ostean sortutako nazioarteko kanpainaren baitan. Kurdistaneraino egin ge-nuen bidaia, eta **Leyla Hassanpour** arreba etorri zen Gasteizko eta Iruñeko Legebiltzarretara Adnan Hassanpou-rren egoeraren berri ematera. Bi parlamentuen elkartasuna jaso zuen; nazioarteko kanpainak fruiturik izan zuen, eta heriotza-zigorra kendu zioten kazetariari, baina hamar urteko espetxe zigorra bete behar izan du.

Irailaren 10ean, albisterik ederrena jaso genuen, **Adnan azkenean libre zela**, bidegabeko espetxealdia amaituta.

2016 urte honek ekimenik garrantzitsuenetako udazkenean izango du, mugarri izango den hizkuntza-gutxituen kongresuarekin eta elkarlan horretatik espero den hizkuntza-eskubideen protokoloarekin. Datozen orrialdeetan ezagutuko dugu hobeto.

DEKLARAZIOtik PROTOKOLOra:

Gizarte zibila giltzarri

1993ko abenduan, Nazioarteko PEN Klubaren Itzulpen eta Hizkuntza Eskubideen Batzordeak ez ohiko batzar batean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala idazteko erabakia hartu zuen. Urrats berri eta eragingarria jarri zuen abian PEN Klubak, zalantzarik gabe.

Erabaki ausart hark ondorio ezin arrakastatsuagoa izan zuen. Horrela, 1996ko ekainean, 61 GKEk, 41 PEN taldek eta hizkuntza-eskubideen eremuko munduko 40 adituk **Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala** onartu zuten.



Esan gabe doa Deklarazio horrek ekarpen berritzailea egin ziela bizikidetzari zein demokraziari, bai eta bakeari ere. Izan ere, hizkuntza komunitateen arteko berdintasuna bermatzea helburu duen dokumentu horrek mundu berri eta justuago baterako urratsak egin zituen.

Gauzak horrela, eta 2016an Donostia Europako Kultur Hiriburuetako bat izango zela kontuan hartuta, euskararen berreskurapenaren alde lan egiten duten 40 eragileren bilgune Euskararen Gizarte Erakundeen KONTSEILUAk aukera bat ikusi zuen urrats berria egiteko. Duela 20 urte gizarte eragileek adostutako Deklarazioa berreskuratu eta hurrengo urratsak zehaztea ekarriko zuen prozesu bat zabaltzea proposatu zion Donostia 2016 Fundazioari, eta bide horri ekin zion 2015ean.

Izan ere, Hizkuntza eskubideak gizakiaren oinarrizko eskubideetan kokatu behar ditugu, zalantzarik gabe. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu.

Horrexegatik, garatu dugun dinamikak tresna bat eskaini nahi du bide honetan; hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena; bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza komunitateekiko jardun demokratikoen bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Europa osoan zehar hizkuntza komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Proiektu honek horien bilgune izan nahi du, Europako gizarte zibilak hizkuntza aniztasunaren garapenerako proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan.
Proiektu honen bidez gizarte eragileen, antolakundeen eta adituen arteko prozesu bat zabalduko da, hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeko protokolo bat jorratzeko eta horren ondorioak nazioarteko goi bilera batean aurkezteko.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP) hainbat lantaldek aurreko urteetan garatutako adoste prozesuaren emaitza izango da eta ikuspegi zientifikoa, akademikoa eta gizartearen ikuspegia bilduko ditu. Hizkuntza gutxituen egoera irauli eta hizkuntza komunitateen arteko berdintasunean oinarritutako Europa eraikitzeko tresna.

Hortaz, proiektutik sortutako ondarea, protokoloa, nazioarteko foro eta instantzietara eramango da izaera anitzeko erakundeek hizkuntza aniztasunarekiko duten konpromisoaren arautzaile gisa erabil dezaten.

Gauzak horrela, protokolo hau osatzeko prozesuan hiru helburu nagusi bete nahi dugu:

1. Hizkuntza aniztasuna bermatzea eta hizkuntzen garapena ziurtatzea, **elkarbizitza eta bakerako oinarri funtsezkoak** direla aldarrikatzea.
2. Hizkuntza berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenenerako tresna eraginkorra sortzea.
3. Hizkuntza komunitateak prozesu honetan subjektu gisa agertzea eta gizartea kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.

BIDAIDEAK

Proiektuaren sustatzaileak Kontseilua eta DSS2016 Fundazioa dira. Haien ekimenez sortua da eta haiek arduratuko dira garapen zuzena izan dezan zaintzeaz.

Protokoloaren lanketari dagokionez, Kontseiluak eta DSS2016EUk Talde Antolatzaile bat izendatu zuen prozesu guztiaren lidergoa hartzeko. Sei erakunde horiek nazioartean eskarmentu eta sona handia dute, eta zeinek bere ikuspegia emateko hautatu ziren: Giza eskubideen, hizkuntza eskubideen, hizkuntza aniztasunaren eta hizkuntza gutxituen sustapenean diharduten gizarte erakundeen nazioarteko sareek edo gobernuz kanpoko erakundeek osatuko dute Antolatzaile Taldea. Honek, proiektuaren jarraipen zuzena egingo du. Aipatu erakundeak honako hauek dira: **PEN INTERNATIONAL**, **ELEN (**European Language Equality Network), **LINGUAPAX**, **UNPO** (Unrepresented Nations and Peoples Organisation); **ECMI** (European Centre for Minority Issues) eta **CIEMEN**.

Horrekin batera, Protokoloa prestatzeko Batzorde Zientifikoa ere eratu da. Erreferentziazko 17 adituk, intelektualek eta ikertzaileek osatuko dute. Diziplina desberdinetan eskarmentua duten pertsonak hautatu dira, bai eta eremu desberdinetan lanean daudenak ere. Horrelako Protokoloan ikuspegi guztiak jasotzen direla bermatzea izango da Batzorde honen zereginetako bat.

Azkenik, Protokoloa prestatzeko prozesu honetan aitortu nahiko genuke, Europako hizkuntza komunitateen inguruan eratutako gizarte zibil antolatuaren lana. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoa suspertu ditu, eta horri esker lortu egin da herritarren sentsibilitatean eragitea.

Horrexegatik, Protokoloaren prestakuntzan gizarte eragileek garrantzi handia hartuko dute. Europako milioika herritarren bozgorailu diren erakundeek eta eragileek adostutako tresna bat sortu nahi dugu. Errealitate desberdinetatik abiatzen gara, zalantzarik ez, baina helburu bertsua dugu geure hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiten dugun gizarte eragileok. Hartara, prozesu hau elkarrengandik ikasteko ere baliagarria izango da.

BIDEA ETA EMAITZA

Prozesu interesgarri bezain zirraragarria jarri dugu abian. Gaur egunera arte Europa osoko ehun eragile baino gehiagorekin izan ditugu harremanak haien ekarpenak jasotzeko eta ehunka izan dira bidali dizkiguten proposamenak: **Irlandan, Frisian, Galesen, Oslon, Asturiesen, Katalunian, Galizian, Danimarkan** eta beste hainbat tokitan egon gara eragileei proiektua aurkezten. **Friuliera, sardiniera, tatarera, korsikera, bretoiera, okzitaniera** eta beste hamarnaka hizkuntzen garapenaren alde lan egiten duten eragileek ere ekarpenak helarazi dizkigute. Europako gizarte eragileen ahalduntze kolektibo ikaragarria egin dugu. Orain, proposamen guztiak bateratzen ari gara, eta **abenduaren 17an Donostian**, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpena egingo dugu. Hartara, 1993an PEN CLUBek Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sortzeko erabaki horri ekarpen kualitatiboa eransteko jauzia egingo dugu.

Paul Bilbao Sarria

TRANSITOAK

Hizkuntza gutxituei buruzko *performance* bat

Galdera hauxe izan liteke: bizi daiteke hizkuntza gutxitu batean? Bizi daiteke euskaraz Bilbon? Bizi daiteke galesez Caerdydd-en? (Cardiff). Edo bizi daiteke korsikeraz Aiacciun (Ajaccio)? Baina, beharbada, lehenagoko galdera honako hau dugu: zer da euskaraz bizitzea? Zer da galesez bizitzea? Zer da korsikeraz bizitzea? Zer da, finean, hizkuntza minorizatu batean bizitzea?

Ez ote luke izan beharko aukera izatea 24 orduz hizkuntza horietan aritu ahal izateko? Espainoldun baten moduan; ingelesdun baten moduan; frantses baten moduan. Elebakarrak izanda ere, ez dute inongo arazorik 24 orduz bizitzeko euren hizkuntzetan.

Ni neu Bilbon (Euskal Herria) bizi naiz. Hiriak 400.000 bizilagun inguru ditu. Guztiek dakite espainolez. Aldiz, 80.000 soilik dira euskaldunak, haurrak eta gazteak gehienbat. Euskararen ezagutzak nabarmen egin du gora azken urteotan. Ez, ordea, hizkuntzaren erabilerak. Oso gustukua dut gazteleraz hitz egitea eta irakurtzea, baina nagusiki euskaraz antolatu nahi dut nire bizitza: ogia erosi, zerbeza bat hartu lagunekin tabernan, hiriko administrazioko langileekin tramiteak egin, medikuarengana joan... Ez da beti posible izaten guztia euskaraz egitea. Euskarak duen ezagutza-maila ikusita, ezinezkoa dela esan liteke.

Iazko ekainean erabaki nuen hilabete batez euskaraz (euskaraz bakarrik) biziko nintzela. Ekainaren 11an kaleratu nintzen eta ez nuen gaztelera erabili uztailaren 10era arte. Nolabait esateko, elebiduna izateari utzi eta elebakar bilakatu nintzen, *euskaldun elebakarra* gazteleradunen oihan batean. Ekimen performatiboan, gainera, hizkuntzak erraminta behar zuen izan hainbat gai aztertzeko: espazioak, hautuak, jarrerak, portaerak, identitateak, bisibilitateak...

Ekimena martxan jarri aurretik, oso jende gutxiri eman nion haren berri. Eta guztiek esan zidaten: "Burutik egin al zaik?". Hark, noski, zer pentsa eman zidan. Zerbait gertatzen zitzaion 'euskaldun' subjektuari, aurretiaz nekien zerbait, baina lehen aldiz esperimentatzen ari nintzen: Bilbon euskaraz bizitzea ez zen prekarietatea, "erokeria" baizik. Zirku-akrobaziaren parekoa.

Erdaldun baten modura 24 orduko hiztun bihurtzeko zorian nengoen hartan, funanbulistatzat –euskaldun funanbulista– hartzen ninduten. Atoan neuri ere etorri zitzaizkidan galderak: erdalduna definizioz egun osokoa bada, behar ote du euskaldunak ere pareko egoera hizkuntz-tipologiari eusteko? Erdalduna egun osokoa bada, zer da euskalduna? Definizioan euskaldunak egun osoz ere behar badu, zer izan naiz orain arte? Eta guztietan galderarik inportanteenak: orain arte euskalduna izan ez banaiz, nolakoak dira euskaldunak? Zein da euskaldun baten egunerokoa? Nola bizi da? Alaia, beldurtia edo fierra da? Nola hartzen dute bilbotarrek? Eragaitza ala aski erraza da euskaldunaren bizimodua?

Hilabeteko esperientziak galdera guztiak asetu zituen. Denetarik gertatu zitzaidan: euskaraz niri ulertu ezinean, kanpoko turistatzat hartu ninduten lau aldiz, non eta neure hirian! Baina haiek, noski, anekdota adierazgarriak baino ez dira. Esanguratsua eta benetan inporta diren bakarrak eguneroko harremanetan sortu ziren ezohiko egoerak eta erantzunak izan ziren: gida-baimena berriztean sortu zitzaizkidan arazoak, auzoko dendari ezagunei ulertzen ez zuten hizkuntza batean egitea, lagun eta senide erdaldunekin nekez komunikatzea... Arazo eta erantzun txar ugari (zigor sozial ugari) pairatu behar izan nituen. Baina, bestalde, ez ziren gutxiago izan esperientzia eta erantzun onak: ohiko-komunikazio moduak haustea edo, bederen, desorekatzea; erdalduntzat jotzen nituen pertsona zenbait euskaldunak zirela deskubritzea; eta, batez ere, eztabaida piztea milaka lagunengan. Izan ere, ustekabean, performancea izugarri zabaldu zen sare-sozialetan eta tokiko komunikabideetan. Baliagarria izan zen jende ugarik hausnarketa egin zezan gure hizkuntzaren egoeraz.

Eta ondorioak? Ondoriorik baino gehiago zirikatzeak. Eta guztietan nagusia, hauxe: ez dago subjektu euskaldunik. Badaude erdaldunak (gazteleradunak eta frantsesdunak Euskal Herrian), aukera baitute 24 orduz beren hizkuntzetan aritzeko. Aldiz, euskaldunak ez du halako aukerarik. Bilbon, kasu, beharturik dago transitatzera hizkuntza batetik bestera etengabean. Eta kasu askotan, gainera, gehienbat gazteleraz aritu beharko du. Nik transeuskalduna deitu diot subjektu horri.

Bestalde, murgiltzeak erakutsi dit posiblea dela hizkuntza-minorizatua uste baino egoera gehiagotan erabiltzea. Erdaldunak gure hitza entzun behar du. Ezin diogu ukatu. Gainera, kasu askotan, estimatu egiten du. Bide bakarra da.

Koordinazioa: U. Urrutikoetxea
Diseinua eta maketazioa: L. Mintegi

pen@euskalpen.eus
euskalpen.eus

BASQUE PEN
Agoitz Plaza, 1.
48015 Bilbao-Bizkaia
Basque Country